

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**“Laudioko enpresetan edo Laudion erroldatutako langileei gerta dakizkiekeen lan-istripu larri edo hilgarrien aurrean erantzuteko erakundeen jardunerako tokiko Protokoloa” izeneko onartzea. (2020/S893/28-O)**

2020ko irailaren 29an, Udalbatzak honako erabaki hau onartu zuen aho batez:

**“Erakundeen jarduera-protokoloa, Laudio enpresetan edo Laudion erroldatutako langileei gerta dakizkiekeen lan-istripu larri edo hilgarrien aurrean erantzuteko**

#### **1. Aplikazio-eremua: istripuen tipologia**

Laudioko enpresetan edo Laudion erroldatutako langileei gerta dakizkiekeen lan-istripu larri edo hilgarri erantzuteko tokiko jarduera-protokoloa aplikagarria da lan-arloan gertatutako mota hauetako edozeinetan:

a) Istripu hilgarri traumatikoak: lanpostuari lotutako arriskuen ondorioz lanaldian gertatzen diren istripuak dira, eta heriotza eragiten dute.

b) Istripu hilgarri ez-traumatikoak: lanaldian gertatzen diren eta faktore endogenoen ondorio diren istripuak dira, eta lan-baldintzek horiek gauzatzen lagun dezakete (infartuak, garuneko isuriak, beste gaixotasun kardiobaskular batzuk eta traumatikoak ez diren beste lesio batzuk), eta heriotza eragin dezakete.

c) Istripu hilgarriak “in itinere”: langilearen bizilekutik lantokirako joan-etorrian eta alderantziz gertatutako zirkulazio-istripuak dira, heriotza eragin dutenak.

d) Lanaldiko istripu oso larriak eta larriak: lan-eremuan gertatutako gainerako istripuei aplikatzen zaie, baldin eta, heriotzarik eragin gabe, ondorio larriak edo oso larriak badituzte langilearen osasunean.

#### **2. Protokoloa aplikatzen zaien langileak**

Protokoloa aktibatuko da istripuak honako ezaugarri hauetakoren bat betetzen duen pertsona bati edo gehiagori eragiten dionean:

a) Audio Udaleko langile funtzionarioak edo bitartekoak izatea.

b) Audio Udalean azpikontratutako edozein enpresak kontratatutako langileak izatea.

c) Laudion erroldatutako langilea izatea, eta lana Laudion edo udalerritik kanpo egitea.

d) Audioko lantoki batean lan egitea, langilearen bizilekua edozein dela ere.

#### **3. Protokoloa Aktibatzea**

1. Audioko alkate-udalburuari dagokio protokoloa aktibatzea.

2. Erakunde- edo udal-eragileren batek Protokoloa aktibatzea eragin dezakeen lan-istripu baten berri duenean, alkate-udalburuari jakinaraziko dio.

3. Protokoloa aktibatzeak lan-esparru hauek abiaraztea ekarriko du:

A. Istripuari buruzko informazioa biltzea.

B. Bozerramaileen Batzarrerako deialdia egitea

C. Adierazpen Instituzionala egitea eta zabaltzea.

D. Istripuari erantzuteko egintzen deialdia egitea edota parte-hartzea.

#### A. Istripuari buruzko informazioa biltzea.

1. Alkate-udalburuak istripuari buruz dagoen informazio guztia bilduko du (istripua zer inguruabarretan gertatu zen, istripua eragin zuten pertsonak, istripua eragin zuten faktoreak, aurretiko gertakariak, etab.). Horretarako, Alkatetzak informazio-iturri hauek hartuko ditu kontuan: batzuk berehala eskuratu ahal izango dira, eta gainerakoak sartu eta aztertu egingo dira, eskuratu ahala:

- a) Enpresa-batzordea edota langileen ordezkariak.
  - b) Enpresako Zuzendaritza Batzordea.
  - c) Jardun duten polizia- eta segurtasun-kidegoak.
  - d) Jardun duten organo judizialak.
  - e) Laneko prebentzioaren eta segurtasunaren arloan eskumena duten erakunde publikoak.
2. Alkate-udalburuak Bozeramaileen Batzordeari emango dio bildutako informazioaren berri.

#### B. Bozeramaileen Batzordearen deialdia.

1. Bozeramaileen Batzarako premiazko deialdia egingo da, istripuari buruz dagoen informazioa partekatzeko eta protokoloan aurreikusitako mekanismoak abian jartzeko.

2. Protokoloa aktibatu eta hurrengo 24 orduetan egingo da eledunen Batza.

#### C. Adierazpen instituzionala egitea eta zabaltzea.

1. Alkate-udalburuak Adierazpen Instituzional bat onestea proposatuko dio Bozeramaileen Batzordeari, Protokolo honetan jasotako ereduaren arabera. Adierazpen horretan, honako alderdi hauek jasoko dira:

- a) Istripuaren eta hori eragin duten inguruabarren kondena.
- b) Familiei, lagunei eta lankideei doluminak erakustea.
- c) Istripua gertatzeko inguruabarrak eta arrazoiak argitzeko eskatzea, eta sortzen diren erantzukizunak aplikatzeko eskatzea.
- d) Laudioko Udalak deituko dituen edota parte hartuko duen gaitzespen-ekintzak edota-mobilizazioak jakinaraztea, ezagunak badira.
- e) Herritarrak animatzea gizarte-eragileek deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

2. Adierazpen Instituzionala udalaren webgunean, ZUIN webgunean, sare sozialetan eta udaleko gainerako komunikazio-bitarteko eta -plataformetan argitaratuko da. Era berean, Adierazpen Instituzionalaren kopia jasotzen duen prentsa-oharra bidaliko zaie Laudioko Udalak harremanetan jarri ohi dituen komunikabide nagusiei.

#### D. Istripuari erantzuteko ekitaldietarako deialdia edota parte-hartzea.

Laudioko Udalaren erantzun instituzionalak, Adierazpen Instituzionaletik harago, alderdi hauek jasoko ditu:

- Sindikatuek edo beste gizarte-eragile batzuek oro har deitutako ekitaldi eta mobilizazioetan parte hartzea. Horrela, ahal den neurrian, korporazioa harremanetan egongo da sindikatuekin eta beste gizarte-eragile batzuekin, haien deialdiak ezagutzeko edota baterako ekitaldiak deitzeko.

- Bozeramaileen Batzordeak deitzen badu, udalbatzaren kontzentrazioa udaletxearen atarian, udal-langile eta atxikitzen diren herritar guztiekin batera. Ildo horretan, Laudioko Udalak zuzenean egiten dituen deialdiak ez dira sindikatuek edo beste gizarte-eragile batzuek deitutako mobilizazioekin gainjarriko.

- Istripu hilgarrien kasuan, Laudioko Udaleko banderak haga erdian jarriko dira 3 egunez.
- Istripu hilgarrien kasuan, hurrengo osoko bilkuran minutu bateko isilunea egingo da biktimaren oroimenez.
- Biktima Laudion erroldatuta ez badago, gutun bat bidaliko zaio erroldatze-udalari, biktimaren familiaren eta ingurunearen minarekin solidarizatuta.

LAUDIOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Laudio Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, .....(e) ko .....(a) n, aho batez, honako hau:

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Laudioko Udalak salaketa jarri du .....  
.....  
.....  
.....  
.....eta  
istripua eragin zuten inguruabarrak eta horren ondoriozko erantzukizunak argitzeko eskatzen du.

BIGARRENA. Laudioko Udalak doluminak eman nahi dizkie .....ren familiari, lagunei eta lankideei.

HIRUGARRENA. Laudioko Udalak bat egiten du istripua salatzea eta biktimaren inguruko pertsonen elkartasuna eta babesa adieraztea helburu duten ekimenekin, eta bat egitera animatzen ditu herritarrak.

LAUGARRENA. Era berean, berriro salatu nahi ditugu lan-istripu guztiak, heriotza eragin dutenak edo ez, eta lanetik bizirik itzultzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu.

Laudio, 2020ko.....ren.....an.”

Iragarki honen bidez jakinarazten da, jendeak horren berri izan dezan.

Laudio, 2020ko urriaren 2a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*